

## 2. TESTUINGURUA ETXEKO LAGUNTZEKO JARDUNA

Etxea izan daiteke osasun-arreta emateko lekuetako bat. Osasun-zerbitzua etxean egiteak berekin dakar arazo larri eta kronikoei erantzutea oso testuinguru zehatzetan:

- Ohikoa izango da Lehen Mailako Arretako erizaintzako profesionalak etxera jotzea, kronikotasun-egoerei erantzuteko; sarritan, familiako medikuntzako profesionalak lagunduta.
- Egoera larri batzuek, era berean, zenbaitetan eskatzen dute arreta etxean ematea lehen laguntza-mailako ohiko profesionalen aldetik, etxeko premiazko arretako taldeengandik, osasun-zentroaren ezohiko ordutegian, eta larrialdietako zerbitzuengandik, egoera larrietan.
- Etxeko bisitaldiak egiten diren beste egoera batzuk dira pazienteak etxeko ospitalizazioko taldeen arreta jasotzen duenean.

Kontuan izan behar da etxeak pazientearenganako arreta zuzenekoena eta egiazkoena sorrarazten duela haren ohiko testuinguruan. Etxeak informazio ugari ematen du osasuna baldintzatzen duten faktoreen inguruan, eta profesionali aukera ematen die haien jakitun izateko.

Arreta sor daiteke genero-indarkeriako arazoarekin zuzenean eta esplizituki lotutako kontsulta-arrazoi batengatik. Edota gerta daiteke ere beste arrazoi baten ondoriozko arretan genero-indarkeriako arazo baten zantzuak antzematea, eta horren gainean esku hartu behar izatea.


Medikuntzako edo erizaintzako profesional batek Genero Indarkeriako egoera bat hautematen badu etxeko arretan, eskema orokorrean dagokion **HASIERAKO OINARRIZKO JARDUN**erako adierazitako jarraibideak beteko ditu. Jardun hori zenbait baldintzatzailearen arabera izango da:

- Etxea, era berean, erasotzailearen etxea ere izan ohi da. Hasieratik garrantzitsu izango da konfidentzialtasunari eta intimitateari eustea, arazoari arrakasta-bermeekin heltzeko.
- Baloratu eta bermatu egin behar da emakumearen, seme-alaben eta egoeran esku hartzen duten profesionalen beraien segurtasuna. Arretan zehar ere, baloratu egin behar da haiek zein arrisku-egoeratan geratzen diren osasun-jarduna amaitzen denean. Gainera, familia-etxebizitzan eta ustezko erasotzailearen esku egon litezkeen armak eta/edo tresna arriskutsuak konfiskatuko dira.



- Kasu batzuetan, beharrezkoa izango da segurtasun-indarren presentzia, aurreko premisak oinarri hartuta arreta egokia ziurtatzeko. Beste batzuetan, emakumea eta seme-alabak, baleude, leku seguru batera ebakutzeari neurri egokia izango da.
- Batez ere premiazko prozesuei arreta emateak, sarritan, askotariko profesionalen esku-hartzea dakar berekin, eta zenbaitetan ezezagunena ere. Horrek lagundu egiten du emakumearen eta haren seme-alaben beldurrak eta nahasmena areagotzen. Agertzea, lasaitasuna ematea eta konfiantza sustatzea hasierako ezinbestekoko gaitasunak dira arretaren gainerakoa ziurtatzeko.

Hasierako oinarrizko jardunak irizpide orokorrei jarraituko die.



- Emakumeari etxeko leku egoki batean **ENTZUN** behar zaio. Beharrezkoa izango da toki pribatu bat bilatzea hura aske senti dadin nahi duena esateko, nahi dituen hitzekin, hirugarrenen presentziaren ondoriozko baldintzatzailerik gabe. Ustezko erasotzailearengandik urrun egongo den leku bat aurkitzea nahitaezkoa izango da emakumearen konplizitatea lortu nahi badugu. Gainera, era berean, seme-alabek komunikazio hori baldintzatu dezakete eta banandu egin behar dira, eta/edo pribatuan elkarrizketatu beste une batean.
- Profesionalaren **HARRERA ETA ENPATIA**.
- Beste arreta-baliabide batzuetara lekualdatzea eskatuko duten **ARRISKUEN BALORAZIOA**.
- **JARRAITUTASUNA ETA DERIBAZIOA**. Hasierako arreta emakumearentzat erreferentziakoa den profesionalak (medikuntzakoak edo erizaintzakoak) egiten badu, jarraitutasuna ziurtatu egingo da laguntzako esku-hartzerako hitzordu programatuaren bidez. Gainera, jardun-plana ezarriko da. Arreta Lehen Mailako Arretako, Larrialdietako edo Ospitalizazioko beste profesional batek egiten badu, eta beste laguntza-maila batera deribatzen ez badu, ziurtatuko du, beti, laguntzaren jarraitutasuna, eta haren erreferentziazko profesionalari jakinaraziko die.
- **ERREGISTROA**. Saiatu behar da oharrak hartzeko zailtasunak gainditzeko, horiek bestelako sistema informatikoetan hartzen badira edo paperean

erregistratzen badira; hala, laguntzaren jarraitutasuna eta estatistikei begira datuak erregistratzea ziurtatzeko.

- **JAKINARAZPEN JUDIZIALA.**

NOIZ EGIN BEHAR DA GENERO INDARKERIAKO LESIOEN PARTE BAT?

- Emakumeak eskatzen edo onartzen duenean, beti.
- Emakumeak indarkeria-episodio larria jasateko arrisku handia eta denboran hurbila dagoela baloratzen denean, baimenik ematen ez badu ere.
- Arrisku handirik baloratzen ez bada, parte bidaliko da emakumea sinetsita dagoenean hori egitearen erabilgarritasunaren eta egokitasunaren inguruan. Hau da, errekuperazio pertsonaleko prozesuan dagoenean, bere etorkizunaren inguruan alderdi zehatzei buruz erabakiak hartzen dituenen, eta bere bizi-egoera aldatzen hasteko prestatutako estrategia bat duenean.

Premiazko etxeko arretako taldeek, larrialdietako zerbitzuek eta ospitalizazioko profesionalek kontu izan behar dute alta-txostena egitean, genero-indarkeriaren inguruan bertan jasotako informazioa baloratuta eta kontuan izanik emakumearen segurtasuna dela ziurtatu beharreko lehentasuna. Informazioa historia klinikoan jaso bada edo lesioen parte bat egin bada, horrek jadanik ziurtatu egin ahal izango du laguntzaren jarraitutasuna, eta alta-txostenean bildutako datuak agian ez dira gertatuko hain garrantzitsuak.